

# EuskalHack

Security Congress III

] Call For Papers [



## ] AURKIBIDEA [

[Sarrera](#)

[Data eta tokiak](#)

[Hitz egin EuskalHackean](#)

[Hizkuntza eta internazionalizazioa](#)

[Hitzaldiak eta tailerrak](#)

[Hitzaldien hartze-prozesua](#)

[Data garrantzitsuak](#)

[Hizlarien eskubideak eta abantailak](#)

[Hizlarien bete beharrak](#)

[Ohar garrantzitsuak](#)

[Babesleak eta laguntzaileak](#)

[Harremanetan jarri](#)



## Sarrera :\>

EuskalHack Security Congress Hirugarren Edizioa, EuskalHack Segurtasun Informatika Elkartearen proposamen berri bat da, segurtasun digitalean komunitatea eta kultura sustatzeko asmoarekin sortua, eta interesatuta dagoen edozein publikora zuzendua. Ohikoa izaten denez, edizio berri honek nortasun-ezaugarri, hurbiltasun eta kalitate teknikoa izaten jarraituko du.

180 pertsonentzat estimatutako edukierarekin, Euskal Herriko segurtasunean bereizlea den kongresurik aipagarriena bezela finkatu da.

Parte-hartzaileen perfila zabala da: enpresa espezializatuak, segurtasun indarrak, profesionalak, hackerrak, afizionatuak zein Teknologi Berrien eta Konputazio Zientzien ikasleak.

## Data eta tokia :\>

Kongresua Donostian egingo da, 2018ko Ekainaren 22tik 23ra.

## Hitz egin EuskalHackean :\>

EuskalHack kongresuan parte hartu nahi duen edonori eskua zabaldu nahi diogu, hitzaldiak edota tailerrak prestatzen, bai profesionalentzat, bai afizionatu zein ikasleentzat.

Teknologiarekin edo segurtasun informatikoarekin zerikusirik duten hitzaldiak eta tailerrak izan nahi ditugu. Interesatzen zaizkigun gaiak honako hauek izan daitezke:

- Robotika, Dronak, Kontsolak, Hardware Hacking, Gadgetak, mugikor inguruneak...
- Azpiegitura kritikoak, segurtasun industrialak, Smart City, ingurune finantzarioak...
- Cloud segurtasuna, birtualizazioa, kontainerrak, Hardening, hodei auzitegia...
- Hacking komunikazioetan, GSM, SDR, LTE, 3G, Satellite loturak, VoIP...
- Kriptografia, esteganografia, auzitegi eta saiheste teknikak...
- Datu-meatzaritza, sare neuronalak, eredu estatistikoak...
- Malwarea, APTak, Bypassing, Sandboxing...
- Segurtasun korporatiboa eta inteligentzia, OPSEC, OSINT...
- Web Hacking, SQL y NoSQL Injection, LDAP injection...
- Hacktivismoa, sare neutraltasuna, Deep web, darknet, kriptotxanponak...
- Reverse engineering...



Halaber, proposatutako edozein gaia kontuan hartuko dugu, bere balio didaktikoaren, komunitatearentzako aportazioaren eta, batez ere, parte-hartzaileen gustokoa litzatekeen arabera.

Beste inongo ekitaldietan aurkeztu ez diren proposamenak lehentasunez ebaluatuko dira. Mesedez proposamenaren bidalketan informazio hau handitu.

## Hizkuntza eta Internazionalizazioa :\>

EuskalHackean hizkuntza-aniztasuna zein internazionalizazioa baloratzen dugu, ondorioz, Euskaraz, Gaztelaniaz eta Ingelesez proposaturiko hitzaldiak onartzen ditugu.

Hori dela eta, mesedez, zehaztu zure hitzaldia zein hizkuntzan egin nahi duzun (bai idatzita zein ahozkoan).

Oharra: Ele-anitzak diren proposamenak oso positibotzat jotzen ditugu, ahalik eta publikorik handienera heltzeko asmoz.

## Hitzaldiak eta tailerrak :\>

Kongresuan 2 aukera izango ditugu: hitzaldiak eta tailerrak. Planteamenduak eta iraupenak honako hauek izanen dira:

	1	2
MOTA	Hitzaldiak	Tailerrak
IRAUPENA	50 minutu	120 minutu

Proposamen guztiak baloratu eta gero, zenbat hitzaldi eta tailer izango diren erabakiko da.



## Hitzaldien hartze-prozesua :\>

Proposamenak martxoaren 19a baino lehen bidaliak izan behar dira, honako formulariok erabiliz:

HIZKUNTZA	ESTEKA
EUSKARA	<a href="https://goo.gl/qdB2mS">https://goo.gl/qdB2mS</a>
GAZTELANIA	<a href="https://goo.gl/NkABaf">https://goo.gl/NkABaf</a>
INGELESA	<a href="https://goo.gl/nM9pKa">https://goo.gl/nM9pKa</a>

## Data Garrantzitsuak :\>

Honako hauek dira kongresuaren datarik garrantzitsuenak:

DATA	GERTAKAERA
18/01/17	Proposamenen jasotze-prozesuaren hasiera
18/03/19	Proposamenak jasotzeko amaiera
18/04/04	Erakundeak hizlariak onartuko ditu
18/05/01	Hizlarien materialen harrera
18/05/31	Segimendu komunikazioa
18/06/21	Hizlarien sarrera
18/06/22	EuskalHack Security Congress

## Hizlarien Eskubideak eta Abantailak :\>

- Euskal Herriko kongresurik garrantzitsuenean parte hartzea.
- Joan-etorriaren ala itzuleraren ordainketa erakundeak bere egingo du.
- Ostatu ematea hirian (Donostian).
- Sarbide osoa kongresura, bai lagun batentzat ere.
- Beste hizlari zein EuskalHackeko antolatzaileekin afariak.
- EuskalHack elkartearen bazkidea izateko %40ko beherapena lehenengo urtean.



## Hizlarien Bete-Beharrak :\>

- Erakundearen txantiloia, tipografia, disenua eta logotipo ofiziala erabiltzea.
- Hitzaldiaren dokumentazioa zein xehetasunak elkarteari erraztea.
- Proposamenak data zehatzetan bidaltzea guztien bizitza errezagoa egiteko.
- Material guztien zein ikus-entzuneko grabazioen argitalpenarako onarpen esplizitua.

## Ohar Garrantzitsuak :\>

- Beste kongresuetan eman ez diren hitzaldiak eta tailerrak lehentasuna izango dute.
- Elkarteak emandako datak errespetatzea oso garrantzitsua da, ahalik eta kongresua antolatzeko lanak errazagoak izan daitezzen.
- Hitzaldien zein tailerren iraupena mugatua da, hortaz, errespetatu egin behar dira.
- Legea zein zentzu komuna buruan eduki behar da hitzaldietan.
- Zure egonaldia ahalik eta hoberen egiteko, zure bidaiaren eta ostatu beharrak denborarekin jakitea beharrezkoa dugu.
- Arazoak izanez gero, elkarteak hitzaldiak, tailerrak edota parte-hartzaileen ordainketak bertan behera uzteko eskubidea erreserbatzen du.

## Babesleak eta Laguntzaileak :\>

EuskalHack elkartearen enpresa babesle bezala parte izateak eremu bakar eta berezi batean presentzia eta oihartzuna lortzea ekartzen du, enpresa marka eta sinesgarritasuna sendotzen erraztuz: komunitaterako garrantzizkoa den ekitaldi batean bidali nahi duzun mezua publiko objektibo batera zuzentzea baimenduz.

Babesle-kopurua mugatzea garrantzizkoa iruditzen zaigu, kongresuaren helburua, bertaratutako publikoa eta interesatutako enpresen arteko oreka bat funtsezkoa izanez. Hortaz, kongresu honetan parte hartu nahi baduzu, mesedez harremanetan ipini lehenbailehen hurrengo helbidean: [info@euskalhack.org](mailto:info@euskalhack.org)

## Harremanetan jarri :\>

Web: <http://www.euskalhack.org/>

Mail: [info@euskalhack.org](mailto:info@euskalhack.org)

Twitter: [@EuskalHack](https://twitter.com/EuskalHack)